

PLASMA EMATEA. PLASMAFERESIA

Zer da plasma?

Odolaren zelulak "garraiatzen" dituen odol-likidoa da eta oinarrizko hainbat osagai (proteina) ditu.

Zertarako erabiltzen da?

Gaixoei transfusioak egiteko (gibelego gaitzak, transplanteak, infekzio oso larriak...) eta ontzitxoak prestatzeko (Albumina, Inmunoglobina eta antzekoak), industrian erabiltzen diren zatiketa-metodoen bitartez.

Nola lortzen da?

Odola edo plasmaferesia emanez lor daiteke.

Zer da plasmaferesia?

Plasmaferesi bitartez odolaren osagaiak ematea medikuntza-metodo bat da: odolaren osagai bat edo gehiago ateratzen dira (plaketak, plasma eta/edo globulu gorriak). Plasma bakarrik ateratzen badugu plasmaferesia da. Hori lortzeko prozedura honakoa da: puntzio bat eginez hodiz eta poltsa esterilez egindako sistema bat jartzen da, zainaren eta aferesi-gailuaren artean zirkuitu itxi bat osatuz eta hortik odol pixka bat pasatzen da, 150 cm³ inguru. Zentrifugazio eta filtrazio bidez gailuak osagai hori bereizten du (plasma, gehienez 600 ml) eta organismoari odolaren beste osagai guztiak itzultzen dizkio koagulazioaren aurkako soluzioarekin batera. Prozedura motaren, makina motaren eta lortu nahi den osagai kopuruaren arabera denbora gehiago edo gutxiago beharko da. Oro har,

minutu inguru behar dira.

Segurua al da plasmaferesia ematea?

Bai, odola ematea bezain segurua da. Esperientzia duten langile kualifikatuek zaintzen eta gainbegiratzen dute prozesua. Plasmaferesia mundu osoan ematen da orain dela 30 urtetik.

Zergatik da beharrezkoa plasmaferesia ematea?

Emaille bakar batek plasma gehiago eman dezakeelako odolari beste osagai guztiak kendu gabe, eta gero eta gehiago behar den odolaren osagai hori egotea ziurtatzen duelako.

Ze baldintza behar dira plasmaferesia eman ahal izateko?

Odola emateko behar diren baldintza berdinak, eta zain onak edukitzea.

Zenbat aldiz eman daiteke?

Odola baino gehiagotan eman daiteke, baina praktikan gure politika hiru hilero ematea da eta beti ALDEZ AURRETIK emaillearekin hitzordua adostu ondoren.

Nola egin daiteke plasmaferesi emaille?

Emaillearen telefonora deituz (900 303 404) edo zuzenean gure Zentro batera joz, non eta informazio zabalagoa emango baitizute:

AFF4000F

Osakidetza
Trantsfusio eta Gaitz Osoak Garbi Zentzua
Centro Vasco de Transfusión y Gaitz Osoak

Euskadiko Odol Emaitzak
Donantes de Sangre de Euskadi

PLASMAFERESI emaillea

Urrats bat Aurrerago

INFORMAZIO INTERESGARRIA
Donostia: 943 455411 / 943 455622
aferesis.c.v.t.t.h.donosti@osakidetza.net

Vitoria-Gasteiz: 945 007878 / 945 007627
donantes.sangrealava@osakidetza.net

Galdakao: 94 4007157 / 900 3030 404
aferesis.cvthgaldakao@osakidetza.net

900 .303. 404
www.donantesdesangre.com